



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

MITOAK

M I T O S


24

DENBORALDIA

TEMPORADA

25

www.bilbaorkestra.eus





Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

DENBORALDIA **24** TEMPORADA
25

www.bilbaorkestra.eus



MITOAK

24

DENBORALDIA

TEMPORADA

25





MITOAK

Jatorrizko adieran, mitoak istorio sakratuak dira, kontakizun ohoragarriak, gizarteak munduaren jatorria eta bilakaera azaltzeko baliatzen zituen narrazioak. Hala, memoria kolektiboan oinordetza kultural gisa geratzen ziren, hurrengo belaunaldiei errealitatea ezagutarazteko. Baina mythos hitz greziarrak ez zuen soilik “aparteko izakien jarduera eredugarri eta gogoangarriari buruzko kontakizun tradizionala” esan nahi, baizik eta baita obra poetiko edo antzezlan baten “argumentua” ere. Hori horrela, artistaren figura ezinbestekoa bihurtzen da antzinako mitoen esanahia berritzeko eta, aldi berean, mito berriak sortzeko, beren jatorri erlijiosoetatik aske. Mito berri dei diezaiekegu, edo arketipo, baina, edonola ere, narrazioek beren funtsari eusten diote: betiereko giza errealitate sutsu eta dramatikoak azaltzen jarraitzen dute.

Beraz, artistak pertsonaia eta heroiei forma ematen die, gizarteak bere sentitzen dituen bulkada eta desirak islatuz. Antton Zubikarai estimatuaren hitzetan, “ez dira iraganaren azalpen soil bat, ezpada kolektiboaren barrualdean dagoen sare antzeko bat, giza ibilbidearen barruan beti presente jarraitzen duena”.

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) 2024-2025 denboraldiak mito, pertsonaia eta arketipo horietako batzuk ekarriko ditu oholtzara, konpositoreen tratamendu musikalaren bidez beste dimentsio bat har dezaten.

Scheherezade, Zarathustra, Ofelia, Artista

Gure denboraldiaren barruan, lau mito edo arketipotan oinarritutako mini-ziklo bat antolatu dugu, musikaren munduan erreferentziazkoak diren lau lan sortu dituztenak. Ekialde urrunetik, adimenak eta irudimenak sultanaren ankerkeria gainditu dezaketela irakasten digu *Scheherezadek*, mila eta bat gau irauten duen berrikaste prozesuan, zeina Rimsky Korsakovek abentura film baten xarmaz deskribatu baitzuen. Europaren bihotzean, Nietzschek *Zarathustra* profeta persiarraren irudia hartzen du, jainkoen heriotzaren ostean Supergizakiak gobernatuko duen mundu berri bat predikatzeko. Richard Straussek dimentsio sinfoniko berri eta zoragarria eman zion diskurtso horri. Shakespeare idazlearen irudimenetik sortu zen *Ofelia*, maitasunaren ondorioz galdutako arrazoiari buruz mintzo zena. Baina Paul Griffiths kritikari musikalak beste ahots bat eman zion *Let me tell you* eleberrian. Bertan, Ofeliak bere zorigaitza kontaktzen digu, Bardoak *Hamleten* eman zizkion 483 hitzetara mugatuz, eta, Hans Abrahamsenen musikan emozio izugarria hartzen dute. Azkenik, Berliozek Artista erromantikoaren arketipoa ekarri zuen bere *Sinfonia Fantastikoa* ospetsura. Lan hori historiako psikodelia musikaleko lehen obratzat jo zen, kategoria hori ondo irabazita.

Abonu tematikoa MITOAK: 5, 6, 11, 16



Eraztunen Jauna: bi dorreak

Mitoaren kontzeptua ez da mini-zikloko lau kontzertuetara mugatzen. Aitzitik, denboraldi osoa zeharkatuko du, *Eraztunen Jaunaren* bigarren parte bezalako programa erakargarri eta desiratuetan. Lehen emanaldiaren arrakastaren ostean, ezinbestekoa zen Howard Shoreren musika jarri eta Peter Jacksonen filma proiektatzea. Bilboko Korál Elkar-tearen eta bere Haurren Abesbatzaren ahotsak berriro izango ditugu gurean, BOSekin batera Tolkienen epopeia handia kontatzen jarraitzeko. Askoren ustez, *Bi dorreak* lana, musikaren ikuspegitik, trilogiako emanaldirik onena da, Howard Shorek izugarritzko gaitasuna erakutsi baitzuen lehendik ezagunak zitzaizkigun melodiak gai berriekin maisutasunez uztartzeko. Gainera, Euskalduna Jauregiako pantaila handian proiektioak kalitate ezin hobea izango du.

Orkestra gonbidatua: Espainiako orkestra Nazionala (ONE)

Duela gutxi Auditorio Nacionalean izan gara. 2025eko urtarrilean, ONEk bisita itzuliko digu, mendearen lehen hamarkadan gure zuzendari titularra izan zen Juanjo Menaren zuzendaritzapean, Juan Floristán piano-jotzailearen partaidetza eta Mahler konpositorearen *1. sinfonia* (Titan) izugarria dakartzan programa erakargarria tarteko, berriz ere mitoaren oihartzunak geureganatuz.

Zuzendari gonbidatuen zerrenda luzea

Orkestra hau zuzendarien zerrenda oparo baten esku geratuko da. Batzuk ondo baino hobeto ezagutzen dituzte gure ikusleek, berriz ere baitatoz gurerara, merezi duten bezala. Horren adibide dira: Erik Nielsen (gure titularra azken 9 urteetan), Nuno Coelho, Lorenza Borrani zirrargarria (berriro BOSbaroquen), Pablo González, Giancarlo Guerrero, eta Masaaki Suzuki (azken horrek Mozarten arien programa bat egiteko eskatu digu gurean hazkunde handiena izaten ari den kantarietako batekin, Jone Martínezekin). Bestalde, BOSen podiumera lehen aldiz igoko dira ibilbide esanguratsua duten hiru zuzendari: Kristiina Poska, Elena Schwarz eta Joana Carneiro. Halaber, etorkizun oparoa duten hiru gazte debutatzera etorriko dira: Jaume Santonja, Luis Toro txiletarra eta Eduardo Strausser brasildarra, ospe handiko zuzendarekin batera (Tatsuya Shimono, Marcus Stenz, edo Wayne Marshal piano jotzaile eta zuzendari ikaragarria).



Solista ospetsuak: Frank Peter Zimmermann, Nobu, Bomsori, Kholodenko

Frank Peter Zimmermann biolin-jotzailearen bisita bakoitzak zirrara pizten du. Duela hainbat urtetatik biolin-jotzaileen gailurrean dagoen artista honek gure denboraldiari amaiera emango dio, Brahmsen kontzertuarekin. Hala, Totem handi hau berebiziko ekitaldi bihurtuko du. Iraganean gurekin kontzertu bikainak egin ondoren, Khachatryan bueltan da. Bestalde, debutatzera etorriko dira, batetik, Bomsori, oraindik hain ezaguna ez den arren zapaldu duen oholntza bakoitzean harridura piztu duen artista, eta, bestetik, Sergei Dogadin musikari gaztea. Piano-jotzaileen zerrendan, 2022ko lehen bisita gogoangarriaren ostean, Noburen itzuleraren zain gaude (berarekin egin genuen grabazioak 750.000 ikustaldi baino gehiago izan ditu), oraingoan Ravelen Sol maiorreko kontzertuarekin, konpositorearen 150. urteurrena ospatuz. Halaber, Vadym Kholodenkoa piano-jotzaile ukrainar zoragarria BOSEkin debutatzera etorriko da, Beethovenen "Enperadorea" lan handia tarteko. Bere heriotzaren hamargarren urteurrenean Paco de Lucía ere oroitu nahi dugu, Al-Ándalus kontzertuarekin, Juan Manuel Cañizares gitarra-jotzaileak bere omenez idatzia. Bestalde, Néstor Sutil flauta-jotzaileak Liebermannen *Piccolo eta orkestrarako kontzertu* berezia interpretatuko du, Erik Nielsenen zuzendaritzapean, bere orkestrara bueltan.

Kolaborazioa Columbus Fundazioarekin

Irailean, Columbus Fundazioarekin kolaborazio bat estreinatuko dugu, gaixotasun arraroen ikerketa babesteko. Horretarako, hiru kontzertu egingo dira (Donostiako Kursaallean irailaren 11n, Bilboko Euskaldunan irailaren 13an eta Arantzazun irailaren 14an), Joaquín Achúcarro piano-jotzailearekin eta Ramón Tebar zuzendariaren gidaritzapean. Programan, Griegen *Pianorako kontzertua eta Brahmsen 1. sinfonia* entzun ahalko dira.

Santanderko jaialdia eta Bizkaiko presentzia

Abuztua eta iraila bereziki biziak izango dira BOSen kontzertuen egutegian. Udako ohiko kontzertu zirkuituaren barruan, BOSEk Bermeo (abuztuak 09), Gorliz (abuztuak 13) eta Getxo (irailak 07) bisitatuko ditu.

Halaber, Aste Nagusian ere egongo gara (abuztuak 21), eta Santanderko Nazioarteko Jaialdira itzuliko gara (abuztuak 05).

Horrez gain, Bilboko Erruki Etxearen 250. urteurrena ospatzeko kontzertuan parte hartuko dugu (irailak 24), eta Musikagileak Elkartearrekin dugun ohiko hitzordura bertaratuko gara (irailak 26).

Ura Bere Bidean 2024

Fair Saturday fundazioarekin dugun kolaborazioak bere bidea jarraituko, denboraldiko hitzordu jendetsuena bihurtu den honetan. Horren lekuko, aurtengo edizioan bere eskaintza bikoiztuko du, BECen bi kontzertu eginez: urriaren 25ean eta 26an.



MITOAK

M I T O S

24

DENBORALDIA

TEMPORADA

25



DENBORALDIA

24

SINFONIKOA

25

🕒 Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira.

📍 Palacio Euskalduna Jauregia
(Bilbao). Auditoriuma

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorkestra.eus

▶ Hastapeneko abonua ▶ MITOAK



© Andrej Crlic

01 urriak 03-04

L. van Beethoven: *Piano eta orkestrarako 5. kontzertua Op. 73 "Enperadorea"*

A. Dvorák: *8. sinfonia Sol Maiorrean Op. 88*

Vadym Kholodenko, pianoa

Nuno Coelho, zuzendaria



© Symond Pauly

02 urriak 10-11 BOSbaroque

W.A. Mozart: *Bahiketa harenean, Obertura K. 384*

F.J. Haydn: *Biolontxelorako eta orkestrarako 1. kontzertua Do Maiorrean Hob. VIIb:1*

Caroline Shaw: *Entr'Act*

F.J. Haydn: *60. sinfonia Do Maiorrean Hob. I:60 "Il Distratto"*

Julia Hagen, biolontxelo

Lorenza Borrani, zuzendaria



03 urriak 17-18

D. Shostakovich: *Piano eta orkestrarako 1. kontzertua Op. 99*

A. Leng: *Alsinoren heriotza*

R. Strauss: *Der Rosenkavalier, Suite Op. 59*

Sergei Dogadin, biolina

Luis Toro, zuzendaria



04 urriak 31- azaroak 01 Proiektzio-kontzertua

H. Shore: *Eraztunen Jauna: Bi dorreak*

Bilboko Korral Elkartea
(Enrique Azurza, zuzendaria)

Bilboko Korral Elkarteko haurren korua
(J.L. Ormazábal, zuzendaria)

Zehaztu gabe, zuzendaria



05 azaroak 07-08

J. L. Turina: *Alonso Mudarraren fantasia bati buruzko fantasia*

J.M. Cañizares: *Al-Andalus kontzertua,*
Paco de Lucíaren oroimenez

N. Rimsky-Kórsakov: *Scheherezade Op. 35*

Juan Manuel Cañizares, gitarra

Jaume Santonja, zuzendaria



© Benjamin Ealovega

06 abenduak 12-13

- L. van Beethoven: *Egmont, obertura Op. 84*
W.A. Mozart: *Piano eta orkestrarako 23. Kontzertua*
La Maiorrea K. 488
R. Strauss: *Also sprach Zarathustra Op. 30*

Jonathan Mamora, pianoa
Pablo González, zuzendaria

 **Occident**
Fundación



07 abenduak 19-20

Gabonetako kontzertua

- O. Respighi: *Trittico Botticelliano*
W.A. Mozart: *Exsultate, jubilate K. 165*
P.I. Tchaikovsky: *Intxaur-hauskailua, II. ekitaldia Op. 71*

Alicia Amo, sopranoa
Giancarlo Guerrero, zuzendaria



© Noah Shaye

08 urtarrilak 16-17

Orkestra gonbidatua

- M. de Falla: *Bizitza laburra, interludioa eta dantza*
M. de Falla: *Gauak Espainiako lorategietan*
G. Mahler: *1. sinfonia Re Maiorrea "Titán"*

Espainiako Orkestra Nazionala
Juan Floristán, pianoa
Juanjo Mena, zuzendaria





09 urtarrilak 30-31

L. Liebermann: *Biolontxelo eta orkestrarako kontzertua Op. 50*

A. Dvorák: *9. Sinfonia mi minorrean Op. 95 "mundu berrikoa"*

Néstor Sutil, piccoloa

Erik Nielsen, zuzendaria



10 otsailak 06-07


E. Hallik: *Aegis*

E. Korngold: *Biolin eta orkestrarako kontzertua Re Maiorrean Op. 35*

J. Brahms: *3. sinfonia Fa Maiorrean Op. 90*

Bomsori, biolina

Kristiina Poska, zuzendaria



11 otsailak 13-14

H. Abrahamsem: *Let me Tell you*

G. Mahler: *4. sinfonia Sol Maiorrean*

Lauren Snouffer, sopranoa

Elena Schwarz, zuzendaria





© Charlie Best

12 otsailak 27-28

- I. Farrington:** *A party for Auntie*
G. Gershwin: *Second Rhapsody, piano eta orkestrarako*
G. Gershwin / R. Russell Bennett: *Gershwin in Hollywood*
L. Bernstein: *Divertimentoa orkestrarako*
L. Bernstein: *On the Waterfront, Suite sinfonikoa*

Wayne Marshal, pianoa eta zuzendaria



© Vasco Vilhena

13 martxoak 13-14

- S. Barber:** *Adagio for strings*
J. Adams: *Doctor Atomic symphony*
L. van Beethoven: *Biolin eta orkestrarako kontzertua
Re Maiorrea Op. 61*

Sergey Khachatryan, biolina
Joana Carneiro, zuzendaria



© Oier Rey Delika

14 martxoak 27-28

- W.A. Mozart:** *25. sinfonia sol minorrea K. 183*
W.A. Mozart: *Kontzerturako aria sorta*
F. Mendelssohn: *5. sinfonia Re Maiorrea Op. 107
"erreformarena"*

Jone Martínez, sopranoa
Masaaki Suzuki, zuzendaria



15 apirilak 03-04

- W. Kilar: *Orawa*
K. Penderecki: *Concerto grossoa hiru biolontxelo eta orkestrarako*
J. Brahms: *4. sinfonia mi minorrean Op. 98*

Michał Dombrowsky, biolontxelo
Orfilia Saiz, biolontxelo
Tomasz Strahl, biolontxelo
Eduardo Strausser, zuzendaria



16 apirilak 10-11

- M. Ravel: *Pavane pour une infante défunte*
M. Ravel: *Piano eta orkestrarako kontzertua Sol Maiorrean*
H. Berlioz: *Symphonie fantastique Op 14*

Nobuyuki Tsujii, pianoa
Tatsuya Shimono, zuzendaria



17 ekainak 05-06

- J. Brahms: *Biolin eta orkestrarako kontzertua Re Maiorrean Op. 77*
L. van Beethoven: *3. Sinfonia Mi bemol Maiorrean Op. 55 "Heroica"*

Frank Peter Zimmermann, biolina
Marcus Stenz, zuzendaria



THE LORD OF THE RINGS

THE TWO TOWERS

HOWARD SHORE'S AWARD-WINNING SCORE

URRIAK 31 OCTUBRE
AZAROAK 01 NOVIEMBRE

In Concert

Filmaren proiektzioa (jatorrizko bertsioa, euskarazko eta gaztelaniazko azpituluekin) eta Bilboko Koral Elkarteak, Bilboko Koral Elkarteko haurren koruak eta BOSk zuzenean interpretatutako soinu-banda.

Proyección de la película (versión original con subtítulos en euskera y castellano) y banda sonora interpretada en directo por la Sociedad Coral de Bilbao, el Coro infantil de la Sociedad Coral de Bilbao y la BOS.

Gure DENBORALDIKO PROTAGONISTA batzuk



© Jean-Baptiste Millot



Vadym Kholodenko

© Simond Pauly




Julia Hagen

© Anastasia Steiner



Sergey Dogadin




Alicia Amo

© Michal Novak



Juanjo Mena



Kristiina Poska

DENBORALDIA

24

TEMPORADA

25



© Anja Schütz

Lauren Snouffer

© Vasco Vilhena

Joana Carneiro

© Olier Rey Delika

Jone Martínez

© Irène Zandel

Tomasz Strahl

© Naoya Yamaguchi

Tatsuya Shimono

Frank Peter Zimmermann



DENBORALDIA

24

GANBERA

25

Flamenkoa Juan Manuel Cañizaresekin, Solista handiak Bomsorirekin, Khachatryan eta gure ganbera-taldeak

Denboraldi sinfonikoan izango ditugun solistetako hiruk bertsio hurbilagoa eskainiko digute ganberaren denboraldiko interprete moduan. Juan Manuel Cañizares gitarra-jotzaileak, Ángel Muñoz dantzariarekin batera, flamenko ikuskizuna egingo dute; Bomsori biolin-jotzaileak biolin eta piano emanaldia interpretatuko du, Thomas Hope piano-jotzailearekin batera; eta Sergey Khachatryanek programa interesgarri bat aurkeztuko du, Komitas konpositore eta etnologo armeniarren musika Schönbergen *Gau antzaldatuaren* sestetorako bertsioarekin uztartuz, BOSeko kideekin batera interpretatzeko.

Gainerako programak gure ganbera-taldeen proposamenek beteta daude. Bereziki azpimarragarriak dira Ravelen urteurrena (150 urte jaio zenetik) eta Shostakovichena (50 urte hil zenetik), bi konpositoreen maisulanak jotzeko (besteak beste, sokarako kuartetoak).

① Kontzertu guztiak 19:30etan izango dira.

📍 Palacio Euskalduna Jauregia
(Bilbao). OB Aretoa

Programazio hau alda liteke. Baldintza orokorrak ikusteko www.bilbaorquestra.eus



01 urriak 28

M. Ravel: *Hari-kuartetoa Fa Maior*ean
BOSen hari-laukotea

G. Gershwin/L. Sauter: *Rhapsody in blue*, hari eta
piano boskoterako
BOSen boskotea pianoarekin



02 azaroak 11

Bakarlari handiak errezitaldian

Cañizares Flamenco Dúo

Ángel Muñoz, flamenko-dantzaria

Juan Manuel Cañizares, gitarra



03 abenduak 9

M. Ravel: *Le tombeau de Couperin*, para quinteto de viento
BOSen haize-boskotea

J. S. Bach: *3. sinfonia re minorrean*
BOSen ensemblea

A. Scarlatti: *Bost aria soprano, tronpeta,*
hari eta baxu jarraiturako
BOSen ensemblea



04 urtarrilak 20

B.H. Crusell: *Kuartettoa Mi bemol Maiorrean*
R. Kó kay: *Quartettino*
BOSen hari-laukotea klarinetearekin

C. Cangelosy: *Theatric n° 10*
S. Reich: *Music for piece of Wood*
P.I. Tchaikovsky/D. Steinquest: *Intxaur-hauskailua*
BOS-EO perkusio-ensemblea



05 otsailak 03

M. Ravel: *Sonatinea, flauta, biola eta harpa hirukoterako*
A. Roussel: *Serenade Op. 30*

BOSen hari, harpa eta flauta hirukotea

D. Shostakovich: *8. hari-kuartetoa do minorrean*
BOSen hari-laukotea



06 otsailak 17

Bakarlari handiak errezitaldian

Bomsori, biolina
Thomas Hope, pianoa




07 martxoak 24

Bakarlari handiak BOSekin batera

Komitas: *Armeniar abesti herrikoiei buruzko 14 pieza*

A. Schönberg: *Gau itxuraldatua Op. 4, hari-seikoterako*

Sergey Khachatryan, biolina
BOSen hari-seikotea



08 apirilak 07

D. Shostakovich: *3. hari-kuartetoa Fa Maiorrean*
BOSen hari-laukotea

L.van Beethoven: *Harietarako sestettoa*
Do Maiorrean Op. 29

BOSen hari-boskotea



09 maiatzak 05

N. Rimsky-Korsakov: *Boskotea Si bemol Maiorrean*
BOSen haize-boskotea pianoarekin

R. Mollá: *Gudari*
M. de Jorge Artells: *Aintzinako Jakituria*
BOSen ensemblea



10 maiatzak 19

E. Korngold: *2. hari-kuartetoa Mi bemol Maiorrean*
BOSen hari-laukotea

D. Milhaud: *Hari-oktettoa (14 eta 15 kuartetook) Op. 291*
D. Shostakovich: *Prelude eta Scherzooa, hari-zortzikoterako*
BOSen hari-zortzikotea



ABONU MOTAK

Denboraldi osorako abonua (17 kontzertu)

Denboraldi osorako abonua aukera ematen du deskontu handia izateko (txartel solteekin alderatuta), BOSek denboraldian eskaintzen dituen 17 kontzertu sinfonikoez gozatzeko.

Abonu tematikoa. MITOAK (4 kontzertu)

Egitarauak: 5, 6, 11, 16

Jatorrizko adieran, mitoak istorio sakratuak dira, kontakizun ohoragarriak, gizarteak munduaren jatorria eta bilakaera azaltzeko baliatzen zituen narrazioak. Hala, memoria kolektiboan oinordetza kultural gisa geratzen ziren, hurrengo belaunaldiei errealitatea ezagutarazteko. Baina mythos hitz greziarrak ez zuen soilik "aparteko izakien jarduera eredugarri eta gogoangarriari buruzko kontakizun tradizionala" esan nahi, baizik eta baita obra poetiko edo antzezlan baten "argumentua" ere. Hori horrela, artistaren figura ezinbestekoa bihurtzen da antzinako mitoen esanahia berritzeko eta, aldi berean, mito berriak sortzeko, beren jatorri erlijiosoetatik aske. Mito berri dei diezaiekegu, edo arketipo, baina, edonola ere, narrazioek beren funtsari eusten diote: betiereko giza errealitate sutsu eta dramatikoak azaltzen jarraitzen dute.

Beraz, artistak pertsonaia eta heroiei forma ematen die, gizarteak bere sentitzen dituen bulkada eta desirak islatuz. Antton Zubikarai estimatuaren hitzetan, "ez dira iraganaren azalpen soil bat, ezpada kolektiboaren barrualdean dagoen sare antzeko bat, giza ibilbidearen barruan beti presente jarraitzen duena".

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren (BOS) 2024-2025 denboraldiak mito, pertsonaia eta arketipo horietako batzuk ekarriko ditu oholtzara, konpositoreen tratamendu musikalaren bidez beste dimentsio bat har dezaten.

Hastapeneko abonua (6 kontzertu)

Egitarauak: 3, 7, 11, 12, 14, 16

Hastapeneko abonua aukera ematen du zaleek nahiz zaletu nahi dutenek gozatzeko moduko sei kontzertu ikusteko aukera izatea. Era askotako kontzertuak dira, baina berehalako gozamen emateko baterako helburua dute, baita musika sinfonikoaren munduan sartzekoa ere.

Abonua nahierara-6 (6 kontzertu)

Nahierako abonua aukera ematen du sei kontzertu hautatzeko abonua labur propioa prestatu nahi duten zaleei.

Abonua nahierara-9 (9 kontzertu)

Nahierako abonamenduaren bidez, zaleek bederatzi kontzertu aukeratu ditzakete haien abonamendu labur propioa egiteko.

PREZIOAK

Denboraldi Sinfonikorako ABONUAK

Abonu Arrunta	Kontzertuak	A+	A	B	B ^{hegala} *	C	C ^{hegala} *
Abonu Osoa	17	366,86 €	337,45 €	266,90 €	240,89 €	135,15 €	122,40 €
Hastapen-abonua	6	-	136,26 €	104,82 €	94,62 €	77,82 €	70,38 €
Abonua nahierara-6	6	-	143,22 €	108,06 €	97,44 €	81,60 €	73,68 €
Abonua nahierara-9	9	-	213,39 €	162,09 €	146,25 €	122,40 €	110,52 €
Abonu tematikoa	4	-	103,08 €	71,76 €	64,76 €	54,80 €	49,48 €

Abonu Gazteak (<30)

Abonu Osoa	17	129,88 €	129,88 €	93,33 €	84,83 €	81,94 €	74,63 €
Hastapen-abonua	6	-	48,48 €	36,12 €	32,76 €	26,22 €	23,94 €
Abonua nahierara-6	6	-	50,94 €	37,02 €	33,60 €	27,84 €	25,32 €
Abonua nahierara-9	9	-	76,50 €	55,62 €	50,40 €	41,76 €	37,98 €
Abonu tematikoa	4	-	34,20 €	25,44 €	23,08 €	19,24 €	17,52 €

Denboraldi Sinfonikorako SARRERAK

	A+	A	B	B ^{hegala} *	C	C ^{hegala} *
Sarrera Arrunta	32,60 €	29,41 €	20,75 €	18,80 €	15,91 €	14,42 €
Gazteak sarrera (<30)**	10,25 €	10,25 €	7,78 €	7,06 €	5,92 €	5,41 €
Azken Ordua***	16,30 €	14,70 €	10,38 €	9,40 €	7,96 €	7,21 €
Credibos	-	145,50 €	103,20 €	-	79,50 €	-

Eraztunen Jauna: Bi dorreak SARRERAK

	A+	A	B	B ^{hegala} *	C	C ^{hegala} *
Sarrera Arrunta	60,00 €	52,00 €	40,00 €	36,00 €	26,00 €	23,50 €
Gazteak sarrera (<30)**	30,00 €	26,00 €	20,00 €	18,00 €	13,00 €	11,70 €

Ganberako Denboraldia


	ABONUAK		SARRERAK	
	NORMALA	GAZTEAK 30 urterarte	NORMALA	GAZTEAK 30 urterarte
Denboraldi Sinfonikoan Abonatuak	56,80 €	28,40 €	11,18 €	6,03 €
Denboraldi Sinfonikoan Abonatu Gabeak	90,70 €	45,40 €	11,18 €	6,03 €

* Eserleku hauen ikuspena murrizta da.

** Gazteentzako prezio bereziak txartel-leihatilako salmantan baino ez dira aplikatzen.

*** Sarrera-kopuru mugatua.

Prezio horiek baliozkoak dira, tipografia-arazoen eragindakoak direnean salbu. BEZ barne.



SALMENTEN EGUTEGIA

Abono Berrien Salmenta

Denboraldi osorako abonauk

Ekainaren 24tik aurrera

Abonu laburrak

Ekainaren 26tik aurrera

Sarrerren salmenta

Irailaren 16tik aurrera izango dira salgai kontzertuetarako sarrera solteak

www.bilbaorkestra.eus
Euskaldunako txartel-leihatilak

PREZIO BEREZIAK

Gazteentzako abonauk eta sarrerak

30 urtera arteko gazteek deskontu handiak dituzten prezio berezietan erosi ahal dituzte abonauk eta sarrerak (ikusitako abonuen eta sarrerren taula).

Prezio bereziak langabe eta familia ugariarentzat

Talde hauei dagokienez, prezio berezia sortu dugu sarrera solteetarako. Sarrera horiek %50eko deskontua izango dute euren prezio ofizialarekiko.

Taldeentzako deskontuak

Taldeentzako deskontu mota bi eskaintzen ditugu. Bata, %20koa, 7 eta 14 leku bitartean okupatzen dituzten taldeentzat; eta beste bat, %25ekoa, 15 lagun edo gehiagoz osatutako taldeentzat.

CrediBOS

Denboraldi honetan sarrerak aldeztu aurretik erosteko sistema hau berreskuratuko dugu, eta sarrerren prezio ofizialaren gaineko % 20ko deskontua eskainiko dugu. CrediBOSEk musika klasikoaren zaletuari aukera ematen dio denboraldiak aurrera egin ahala entzun nahi dituen kontzertuak aukeratzeko, baita talde txikiei deskontu interesgarri bati heltzeko aukera eman ere.


Hastera doan denboraldirako, CrediBOSEk sei sarrera izango ditu eta kontzertu baterako edo gehiagorako erabili ahal izango da.

Ezin izango da 4. programarako erabili: Proiekzio-kontzertua, Eraztunen jauna: Bi dorreak

DENBORALDI BERRIARI BURUZKO DATA NAGUSIAK

Denboraldiaren hasiera eta amaiera

HASIERA
2024ko urriak 3



AMAIERA
2025eko ekainak 6

DENBORALDI SINFONIKOARI BURUZKO DATUAK

17

Egitarau

34

Kontzertu

35

Bakarlari eta zuzendari

1

Proiekzio-kontzertu:
Eraztunen Jauna: Bi dorreak (4. zenbakia)

1

Orkestra gonbidatu: Espainiako Orkestra Nazionala (8. zenbakia)

4

Egitarau, Mitoak zikloaren baitan (5., 6., 11. eta 16. zenbakiak)

1

Irekiera-kontzertu, Vadym Kholodenko piano-jotzailearekin

1

Egitarau barroko (2. zenbakia)

1

Gabonetako egitarau (7. zenbakia)

1

Amaiera-kontzertu, Frank Peter Zimmermann biolin-jotzailearekin





Bilbao
Orkestra
Sinfonikoa



BESTE JARDUERA BATZUK

BOSen gainerako jarduez gain Kontzertu Didaktikoak eta Familiar programaren Denboraldia -dagokionean emango da horren berri-, BOSeK zenbait konpromiso hartu ditu aldi honetarako:

2024ko Abuztua

Santanderreko Jaialdia	abuztuak 5
Kontzertuak Bizkaian zehar - Bermeo	abuztuak 9
Kontzertuak Bizkaian zehar - Gorniz	abuztuak 13
Aste Nagusia	abuztuak 21

2024ko Iraila

Kontzertuak Bizkaian zehar - Getxo. Muxikebarri	irailak 07
Columbus fundazioa. Kursaal	irailak 11
Columbus fundazioa. Euskalduna Jauregia	irailak 13
Columbus fundazioa. Arantzazu	irailak 14
Bilboko Erruki Etxe Santuaren 250. urteurrena	irailak 24
Musikagileak	irailak 26

2024ko Urria

Ura Bere Bidean	urriak 25 eta 26
-----------------	------------------

2024ko Azaroa

ABAO

2024ko Abendua

Haurtoentzako kontzertuak	
Euskalduna Jauregiaren 25. urteurrena	abenduak 5

2025eko Urtarrila

ABAO

2025eko Otsaila

Kontzertu didaktikoak	otsailak 19, 20 eta 21
-----------------------	------------------------

2025eko Martxoa

Musika-Música. Bilbo

2025eko Apirila

Emanaldi lirikoak Arriaga antzokian

2025eko Maiatza

ABAO

Kolaborazioa Musikenerekin

2025eko Ekaina

Kontzertua Arriaga antzokian	
"La Caixa" kontzertu parte-hartzailea	ekainak 26



Bilbao Orkestra
Sinfonikoa

DENBORALDIA **24** TEMPORADA
25

Palacio Euskalduna Jauregia
Abandoibarra etorbidea, 4 - 48011 Bilbo
Tf. 94 40 35 205
e-maila: abonados@bilbaorquestra.eus



www.bilbaorquestra.eus



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Bilbao

